

Proposamen bat  
gazteontzat.

**ERNAI** Gazte  
Antolakundea

Euskal Herrian,  
2024ko Otsailean



# *Gazteontzat*

Bizitza duinak Euskal Herrian.

---







# *Gazteontzat*



Bizitza duinak Euskal Herrian.


---



**ERNAI**

 @ernaigazte |  @ernaigazte

 @ernaigazte |  @ernaigazte

 [ernai.eus](http://ernai.eus)

1.	<i>Sar hitza</i>	05
2.	<i>Zergatik aldarrikapen eremu hauek?</i>	07
3.	<i>Osasun mentala</i>	08
4.	<i>Hezkuntza</i>	10
5.	<i>Bizi ereduak</i>	12
6.	<i>Etxebizitza</i>	14
7.	<i>Enplegua</i>	16
8.	<i>Zaintza</i>	18
9.	<i>Trantsizio ekosoziala</i>	20
10.	<i>Eskubide zibil eta politikoak</i>	23
11.	<i>Amaierako hitza</i>	26

# 1. SAR HITZA

Gazteok arriskuan gaude. Gure belaunaldiak ez du krisia ez den beste egoerarik ezagutu. Izan ere, azken hamarkadetan mendebaldeko gizartea gidatu duen sistema neoliberalaren agorpena ematen ari den garaian hazi eta hezi izan gara. Une hau Zibilizazio Krisi gisa izendatzen dugu. Izan ere, Kapitalak etekin metaketari eusteko, krisi egoera betikotzen duen berregokitzea burutzen ari da. Horren baitan, geroz eta bortitzagoa bihurtzen ari delarik bizitza eta kapitalaren arteko talka.

Horrek, gazteongan forma berezitua hartzen du. Izan ere, gazteria kategoria sozial gisa existitzen denetik, ezinbesteko funtzioa bete izan du sistemaren erreprodukzioaren logikan. Kapitala gazteon lan-indarra ahalik eta gainbalio handiena eskuratzeko baliatu du, horretarako gazteontzako bideratu dutelarik lan-eskaintza prekario eta devaluatuena. Krisi orokortu une honetan, non kapitalaren etekin metaketari eusteko gizarte sektore geroz eta gehiago prekarizatuak izaten ari diren, gazteok hori are modu nabarmenago batean bizi dugu.

Eta horregatik, gazteok krisia modu berezitan bizi dugula esan genezake. Alegia, prekarizazio prozesu orokortuak ezaugarritzen duen belaunaldi krisi baten aurrean gaude. Lan-eremuan esplotatuenetarikoak gara, hogeita hamar urte bete aurretik emantzipatzea amets hutsa besterik ez da eta ezin dugu era duinean ikasi. Gainera, gazteoi dagokigunean etorkizunak dimentsio berezia hartzen du. Izan ere, krisi berezitu bat bizitzen ari gara eta diogunean ez diogu soilik une honi erreferentzia egiten,

baizik eta, egoera honek etorkizunean izan dezaken bilakaerari eta horrek kolektibo gisa eragiten digunari. Esan beharrik ez dago horrek gure osasun mentalean duen eragina. Gaixotasun psikosozialak, pandemiaren ondorio koiuntural gisa saldu nahi izan zituzten, baina gazte ororen bizitza zeharkatzen duen auzi estrukturala dela argi geratu da.

Bizi dugun egoerak erantzuleak ditu, eta proposamen honek horiek interpelatzeko tresna izan nahi du. Alde batetik, gure lan-indarrez aberasten diren eta prekarizatzen ari gaituzten enpresariak, alegia, euren irabaziak geroz eta gehiago handitze-ko gu geroz eta pobreago bihurtzen ari gaituzten horiek. Eta bestetik, haien esku dituzten baliabideak egoera hau arintzeko erabiltzeari uko egin eta elite ekonomikoan mesedetan jarduten duten erakunde publiko zein agintariak, bereziki Nafarroa Garaia eta Euskal Autonomia Erkidegoan lanean diharduten horiek. Izan ere, egun ez dituzte bizitza duinak izateko oinarrizko beharrianak asetzen.

Hori horrela, proposamena eremu eta hartzaile desberdinei zuzentzen zaio, ulertzen baitugu gazteok Euskal Herrian bizitza duinak lortzeko hainbat direla plano potentzialak eta horietan guztietan eragin nahi du. Alta, ezinezkoa izango da jasotzen diren zenbait neurri eta kokatzen den norabidea burujabetza kuota handiagoak eskuratu gabe aurrera eramatea. Beraz, baliabide hau burujabetza prozesuaren baitan kokatu behar dugu, sinetsita baikaude gazteontzako bizitza duinak era integrean eskuratzeko gure bizitzetan eragiten duten aldagaien gaineko erabakimen osoa behar dugula.

Bestetik, proposamenak Euskal Herriko gazteentzako helduleku izan nahi du, borrokarako tresna bat, baita alternatiba gauzatu daitekeela ikusarazten duen baliabide bat.

Eta, batez ere, proposamen honen helburu gorena sinestarazi nahi izan digutenaren kontra, egungo egoera aldatzerik dagoela ikusaraztea da. Gazteon bizitzak zeharkatzen dituzten zortzi eremu arakatu eta horietako bakoitzean Euskal Herrian gazteon bizi baldintza duinak bermatzeko hartu beharreko norabidea zein den marraztea xede duen bitarteko bat dugu eskuartean.

Beraz, gonbita egiten dizugu proposamen honen edukietan sakontzera, ideia desberdinak gehiago garatzera eta horiek martxan jarri daitezen lan egitera. Izan ere, saldu nahi digutenaren aurrean alternatiba egon badago, eta hori gure esku dugu!

## 2. ZERGATIK ALDARRIKAPEN EREMU HAUEK?

Jarraian, Euskal Herrian gazteok duintasunez bizi ahal izateko, lehenetasunezko zat kokatzen ditugun aldarrikapen eremu bakoitzaren gainean egungo egoeraren analisia egin zein egoera gainditzeko norabidea markatu eta aldarrikapen zehatzak kokatuko ditugu.

Esan bezala, aldarrikapenen bitartez logika bat eta etorkizuneko erronkei erantzuteko norabide bat proposatzen da. Hortaz, proposamen honen helburua ez da soilik urgentziaz erakundeei hartu beharreko neurriak exijitzea, ezta ere egoera idealena zein izango litzatekeen marraztera mugatzea soilik. Biak estrategiko eta ezinbesteko ulertzen ditugun heinean biei erreferentzia egiten die.

Aldarrikapenek bi plano horietan eragin nahi dute. Alde batetik, alternatibak irudikatzeke erabiltzen dugun markoan, horrela era alternatibak imajinatzen lagundu dezakeelakoan. Eta bestetik, gazteok bizi dugun muturreko egoera honen aurrean eremu desberdinetatik garatu behar diren neurriak kokatzeari.

# Gazteon osasun mentala erdigunera.

## 3. OSASUN MENTALA

Gazteok gure bizitzen gaineko prekarizazio prozesu orokortua bizitzen ari gara, ondorio lazgarriak izaten ari dituen gure osasun mentalean.

Pandemiaren testuinguruan gazteon osasun mentala agendaren lehenengo lerroan kokatu zen. Alabaina, hori ez zen izan Covid 19aren izurriteak sortutako gaitz bat. Izan ere, aurreko urteetan gaixotasun psikosozialen goranzko joera bat ematen ari zen. Alegia, pandemiak zein horretatik eratorritako bestelako faktoreek jadanik existitzen zen arazo bat mahaigaineratu baino ez zuten egin.

Alta, zenbait sektore mediatiko eta politikoetatik auzia pandemiaren testuingurura mugatzen zen arazo koituntural gisa irudikatu nahi izan dute. Auziaren erroan kokatzen diren zergatiei erreparatu gabe. Alegia, proposamen honetan kokatzen den bezala, gazteen bizitzen esparru guztiak prekarizatuak izaten dabilta eta, era berean, etorkizunean eszenatoki hobe batean aurkitu gaitezkeenaren ideia desagerrarazten ari dira. Gazte belaunaldiei distopia besterik ez egokitzea nahi dute. Horrek guztiak, belaunaldi berriak espektatiba kolektiboen krisira eraman ditu, mundu hobe bat irudikatzeke aukera zapuztu baitute. Era berean, balore zein joera indibidualisten indartzea ematen ari dela antzeman daiteke. Zeinak, geroz eta gehiago bakartu eta heldulekurik gabe kokatzen dituen gazteak. Horrek guztiak gazteon osasun mentalean ondorio lazgarriak uzten dituelarik.

Datuei begira, 2021ean osasun mentalari lotutako kausak izan ziren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen laugarren ospitalizazio zergatia Gazteen Euskal Behatokiaren araber. Gainera, kopuru horrek ez ditu ospitale psikiatrikoetako kopuruak jasotzen.



Bestetik, azkenengo bi urteetan auzia larriagotu besterik ez dela egin ikus daiteke. Suizidioari dagokionez adibidez; bai 2021an zein 2022an -ez da 2023ko daturik argitaratu- estatu mailan gazteon artean lehen heriotza kausa izan zen Espainiako Estatistika Institutuaren arabera (EEI). Gainera, estatu mailako laugarren intzidentzia handiena Nafarroa Garaian kokatu zelarik. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza zailak ikastetxeetan suizidioaren prebentziorako sortutako protokoloa 613 aldiz aktibatzen zen 2022-2023 ikasturtean zehar.

Aipatu beharra dago generoari eta gaitasun ekonomikoari lotutako faktoreek duten eragina. Generoari dagokionez, emakumeen %22,6ak depresioa diagnostikatua dute, gizonen aldiz %13,1ak (Gazteria, osasuna eta ongizatea barometroa, 2023). Era berean, EHUKo Osasunaren Gizarte-Baldintzatzaile eta Aldaketa Demografikoari Buruzko Ikerketa-Taldeak (OPIK) ikerketa taldeak ohartarazi duenez, 14-18 urte bitarteko emakumeen %30 inoiz antsiolitiko edota hipnotikoren bat hartu izan du, datu horien oinarrian genero eraikuntzari lotutako aldagaiak daudelarik. Hari beretik, LGT-BIQ+ kolektiboan topatzen da gaixotasun psikosozial zein suizidio tasarik altuenak.

Azkenik, azpimarratu beharra dago hori guztia bizi duten gazte askok laguntza psikologikoa jasotzeko dituzten ezintasunak. Izan ere, honek klase ardatzak ere zeharkatzen du. Alegia, %37,8ak (Gazteria, osasuna eta ongizatea barometroa, 2023) arazo ekonomikoaren ondorioz ezin izan du laguntzarik eskatu.

Auziaren dimentsioa hori izanik hurrengo hirurak dira egoera iraultzera bidean indartu beharreko eremuetako batzuk:

### **1. TERAPIA PSIKOLOGIKO PUBLIKOA ETA DUINA.**

Egun, artatze psikologikoa erabat pribatizatutako eremu bat da, eskaintza publikoa gainezka aurkitzen da, 100.000 pertsonako 6 psikologo besterik ez daudelarik. Aitzitik, psikologo pribatu baten sesioen ordu beteko kontsulta baten batez beste kostua 60€koa da. Horregatik, terapia publiko eta duina bermatu dadin psikologo publiko gehiago behar dira.

### **2. GAIXOTASUN PSIKOSOZIALEN ETA SUIZIDIOAREN PREBENTZIOA BERMATU.**

Ezin dugu soilik muturreko egoerei aurre egitean pentsatu. Auziaren erroan kokatzen diren aldagaiei heldu eta suizidioa zein gaixotasun psikosozialak prebenitzeko bermeak sortzeko, egungo egoera ahalbidetzen dituzten faktore sozial eta ekonomikoak irauli behar dira.

Era berean, gaixotasun psikosozialei lotutako informazioa eta sozializazioa indartu behar da. Hau da, gizarte mailan tabu izateari utzi diezaion erakunde publikoek ezinbesteko paper bat bete behar dute.

### **3. ELKAR ZAINDU DEZAGUN, AFEKTUAK KOLEKTIBIZATU.**

Zaintza eta afektuak modu kolektiboan antolatu ezean arazoa betikotu besterik ez da egingo. Familia nuklearrak eta maitasun erromantikoak inposatutako afektuen hierarkizazioarekin amaitu eta horiek modu kolektiboan antolatzea izango da osasun mentalaren problematika iraultzeko gako nagusienetarikoa.

# *Euskal hezkuntza sistema publiko propioa!*

## 4. HEZKUNTZA

Hezkuntzak sistema kapitalista zisheteropatriarkalaren interesetan jokatzen duen papera erabakigarria da. Sistema neoliberalari estuki lotutako ereduak dugu eta horren beharrak asetzera bideratuta dago. Hau da, merkatuaren mesederako jakintzen produkzioa zilegitzen du. Eredua, Frantziar eta Espainiar estatu patriarkal eta neoliberalak sustatua eta arautua da, finean horien interesen baitan eraikia dago: lkuspegi ideologiko, identitario, linguistiko, kultural eta sozioekonomikoak inposatzen dituzte, argi adieraziz ez dietela Euskal Herriko beharrei erantzuten.

Hezkuntza sistemaren pribatizazio eta merkantilizazio prozesu sakonek baliabideen eta eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea murriztea ez ezik, ikasleen prekarizazioa nabarmen areagotzea eragin du. Egun, Nafarroako Unibertsitate Publikoan graduen baitako matrikulazioak 906-1.282,8€ bitarteko gastua suposatzen du eta Euskal Herriko Unibertsitate Publikoan 805-1.135€ bitartekoa da; NUP eta EHUren datuak hurrenez hurren. Eskaintzen diren graduak, formakuntzarako, mailakatzea egiteaz gain, horrek argi adierazten du unibertsitate ereduak irisgarritasun eta unibertsaltasun traba nabarmenak dituela.

Egoera horren aurrean, beharrezkoa dira zenbait aldarrikapen mahai-gaineratzeaz gain berehalako aldaketak martxan jartzea:

### **1. IKASKETA PROZESU DUINA BERMATU.**

Ikasleen beharrak erdigunean jarriko dituen eta ikasleen garapen integrala bermatuko duen hezkuntza eredu beharrezkoa da: Eredu memoristiko eta indibidualista atzean utziz, elkarrekintza, kritikotasuna, autonomia, oinarritzko baliabideen kolektibizazioa eta, besteak beste, lan erritmoen errespetua funtsezkoak izan behar dira.

Bestalde, ikasleriaren parte-hartzerako eta erabakiak hartzeko eremuak indartzea ezinbestekoa da, hots, benetan ikasleen beharrei erantzuten dien hezkuntza eredu demokratikoa eta behetik gora proposatutakoa hauspotu behar da.

### **2. SARBIDE ETA PROZESU DOAKO ETA UNIBERTSALA.**

Sarbidea doakoa eta unibertsala izateko bermeak ezarri behar dira. Alde batetik, hezkuntzari finantzaketa nahikoa esleituta, doakotasun erreala sustatu behar da. Eta bestetik, sarbidetik haratago ikasketa prozesuak irauten duen epealdian ere doakotasun neurriak ezartzea nahitaezkoa da, hau da, matrikulaz gaindiko kostuekin amaitu beharra dago.

### **3. HEZKUNTZA EREDU FEMINISTA, EUSKALDUNA ETA BURUJABEA BEHAR DUGU.**

Feminismotik heziko duen hezkuntza eredurako bermeak ezarri behar dira. Pedagogia feministak eta interseksionalitateak oinarrituko duena. Horrela, hezkuntza patriarkatua eta normaren erreproduktzioarako prozesuaren zutabe izateari utzi diezaion.

Bestalde, Euskal Herriaren ikuspegi kultural zein nortasun propioa aintzat hartzen duen hezkuntza eredu behar dugu. Zentzu berean, lekuan lekuko errealitate eta kultura-transmisioa bermatu behar du. Eta horrek ere, ikasleen euskalduntze prozesuan aurrera urratsak emateko bermeak ezarri behar ditu: Euskal Herri osoan hezkuntza prozesuaren integritasuna euskaraz garatzeko eskubidea bermatu behar da. Horregatik ere, curriculum propioa diseinatzeko eskubidea beharrezkoa da.

# *Bizitzeko modu berri bat*

## 5. BIZI EREDUAK

Egun, gazteoi bizi eredu jakin bat inposatzen digute. Hain zuzen ere, sistemaren erreproduzioaren logika elikatzen duen eredu. Horri, bizi eredu neoliberala esan diezaiokegu eta horrek balore indibidualista, hiperazkarrak, kontsumista, atzerakoi eta zaugarritasunaren kontrakoak indarrean jartzen ditu. Bizitzan aurrera egin ahal jasotzen dugun heziketa ereduak, berebiziko eragina du aipatutako balore horien barneratzean, albo batera utziz heziketa edota irakaspen emozional, sexual eta bizitzarekiko jasangarriak direnak.

Gure bizi proiektua eredu horren baitan garatzea, elite ekonomikoek gazteok askatasunez eta modu propioan hartzen dugun erabaki gisa proiektatzen dute. Kontrara, hautu propioa eta librea izatetik urrun, sistema neoliberal zisheteropatriarkalak haren hertsadura mekanismoen bitartez bizitzeko inposatzen digun eredu da.

Alegia, haren interesen erreproduziorako ezinbestekoa zaion eredu da eta hori zabaldu eta ezartzeko desiragarri bihurtzen dute. Horretarako, era sotilean eta hainbat input-en bidez, industria kulturala kasu, bizi eredu ideal, beharrezko eta desiragarri gisa ikusarazten digute.

Era berean, bizi eredu neoliberal eta biolentzia hertsiki lotuta dauden bi aferak dira. Bizi eredu neoliberal, biolentzia da eta ertzetan kokatzen diren kolektiboen aurkako biolentzia, bere forma guztietan, ezinbestekoa du, gizartea diziplinatu eta homogeneizatzeko. Sistemaren krisi orokor une honetan, sistemak bere biziraupenerako

geroz eta joera biolentoagoa zabaltzen ari da. Hori datuek ezin hobeto ilustratzen dute: Estatu mailan aurreko urtearekin alderatuta, gorroto delituak %30a igo baitira. EAEn adibidez, 2019a ezkeror gorroto delituak etengabeko igoera esponenziala izaten ari dute, 2020tik 2022ra bitartean gorroto delituak bikoiztu zirelarik Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera.

Egoera larri honen aurrean, bizi eredu eraldatzaileen aldeko hautua egitea ezinbestekoa izango da. Ez garelako soilik maila moralaz ari; mundu jasangarri eta bizigarri baten eraikuntzarako ezinbestekoa da gure bizitzak beste eredu baten baitan garatzea. Bide horretan hurrengoak ezinbesteko urrats gisa kokatzen ditugu:

### **1. ERASORIK GABEKO BIZITZAK NAHI ETA BEHAR DITUGU.**

Aurrez aipatu bezala, sistemak inposatzen duen bizi eredu hegemonikoa biolentoa da eta ertzetan kokatzen diren sektoreak erasotzen ditu; besteak beste, pertsona migratu eta arrazializatuak, gorputz ez-normatiboak, emakumeak eta sexu-genero disidentekak. Horregatik, bi dira horri aurre egiteko ezinbestean garatu beharreko urratsak: Ertzetan kokatzen diren pertsonen eskubideak bermatuko dituzten politika publikoak martxan jartzea eta bestetik autodefentsa kolektiborako mekanismoak garatzea.

Era berean, bizi dugun oldarraldiaren baitan estaturik gabeko nazioak, eta are gehiago, gure nazioetan proiektu eraldatzaileak garatu nahi dugunon aurkako erasoak handitzen ari dira. Horregatik, herri gisako erantzunak artikulatu eta oldarraldi erreakzionarioari herri proiektu sendo eta askatzaile baten bidez aurrea hartzea ezinbestekoa izango da.

### **2. BIZITZA AZKARRETIK ETA LOGIKA KONTSUMISTATIK ALDENDU.**

Sistema kapitalistak ezinbestekoa du bizkortasuna gure bizitzaren aldagai zentral gisa kokatzea. Ahalik eta produktiboena izatera eta komunitatean ahalik eta denbora gutxien ematea nahi dute, baita helburu produktiborik gabeko egitasmoetan. Logika bera aplikatzen dute aisialdi esparruari dagokionez, bizitzako gainontzeko eremuekin bezala, aisialdia etekin ekonomikoa lortzera bideratzen dutelarik. Horrela, kalitatean eta eskuragarritasunean mailaketa gauzatzen dute.

Horregatik, bizi erritmoak moteldu eta jasangarri bihurtzeko bizitzaren antolaketak berrasmatu behar dugu, denbora bizitzaren arabera antolatuz, hain zuzen ere. Horren aurrean, guztiontzat kalitatezko aisialdia eskuragarri egon dadin, aukera publikoak zein alternatiba komunitarioak indartu behar ditugu.

### **3. HEZIKETA SEXUAL INTEGRAL ETA FEMINISTA BATEN ALDE.**

Gure bizitzak eta gure buruarekiko zein besteekiko harremanak eredu feminista eta osasuntsu batetik eraikitzeko, heziketa sexual integral eta feministatik abiatu behar ditugu. Horretarako, gure sexualitatea ezagutu, gozatzeko eta horren baitan tresnak garatzeko neurriak eta politikak beharrezkoak dira.

Bestalde, heziketa eredu kolektibo eta aniztasunaren aldekoari bide eman behar zaio, komunitatean eraldatzeko aukerak irekiz.

# *Gazterik ez, etxerik gabe.*

## 6. ETXE BIZITZA

Etxebizitza auziari dagokionez sakoneko krisi baten aurrean gaude. Geroz eta gutxiago dira etxebizitza sarbidea bermatuta duten pertsonak, geroz eta altuagoak dira bai salmenta zein alokairuaren prezioak, funts putreen etengabeko hedapen eta indartze bat bizi dugu, pisu turistikoek auzokideak euren etxeetatik kanporatzen ari dira eta, hori guztia gutxi balitz, erakundeetatik ez dira ari egoera irauli dezakeen politikarik martxan jartzen.

Arazoaren erroan, etxebizitza merkantzia gisa erabilia izana eta horren gestioa merkatuaren logikaren baitan gauzatzea kokatu behar dugu. Hau da, etxebizitza eskubide izatetik urrun negoziatorako bitartekoa da. Nahiz eta bai EAeko zein Nafarroa Garaiko etxebizitza legeetan eskubide subjektibo gisa aitortua egon, hau da, instituzio publikoek edozein dela pertsona bakoitzaren egoera ekonomikoa etxebizitza eskubidea bermatua behar zaiola, espekulazioa goranzko joera etengabean dirau, eta muturreko egoera baten aurrean aurkitzen gara.

Bestetik, larritzeko da orain arte erakunde ugarik etxebizitzaren merkantilizazioaren aurrean izan duten konplizitatea, zein egoera kudeatzeko borondate politiko eza. Arazoaren larritasuna ukatu eta tarteka merkatuaren logika elikatzen duten diru-laguntzak izan dira eskaintzera mugatu diren bakarra.

Alta, egun indarrean dagoen diru-laguntza sistemak arazoa betikotu besterik ez dute egiten. Izan ere, jabe handiak zein espekulatuzaileen interesak babesten dituzte. Gazteok egin behar dugun diru-inbertsio kantitatea gehiago edo gutxiago arintzen badute ere, errentatuzaileen irabaziak berdin jarraitzen baitute. Hau da, egoera iraultzeko merkatuaren logikari amaiera eman behar zaio eta ez arazoa betikotzen duten neurri partzialak baliatu. Horretarako, politika publikoek eta erakunde publikoen eskumenek bermatu behar dute.

Bestetik, etxebizitza sarbidea sistemaren erreprodukzioa bermatzen dituen eredu hegemoniko baten baitan kokatzen dute, bestelako eredu alternatibo guztien auke-

rak ikusezin eta marjinal bihurtzen dituztelarik. Horren oinarrian, besteak beste, familia nuklearraren erreprodukzioa, jabetza pribatua eta zaintza lanen pribatizazioa daudelarik.

Datuei begira egoeraren larritasuna antzeman dezakegu: Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan topatzen dira estatu mailako bai salmentari zein alokairuari dagokionez preziorik garestienak. Emantzipazioaren batez besteko adina 30 urtekoa da. Hego Euskal Herrian 115.742 etxebizitza huts daude, Hiritik At! taldearen arabera. Eta, gazteok gure soldataren %50a baino gehiago bideratzen dugu etxebizitza ordaintzera, Gazteen Euskal Behatokiaren datuen arabera.

Egoera hori izanik hurrengoak dira proposatzen ditugun neurriak:

### **1. PARKE PUBLIKOA HANDITUZ ALOKAIRU SOZIALA INDARTU.**

Bi dira egun bizi dugun egoera gainditzeko ezinbestean garatu beharreko neurriak: Etxebizitza parke publikoa handitzea eta horrekin batera gazteoi bideratutako kupoa handitzea.

Eta bestetik alokairurako aukerak bultzatzea eta horren eredu sozialaren baitako garapena indartzea. Horrela, merkatuaren logikatik kanpoko aukerak bermatu eta herritar zein gazte ororen baldintzen araberrako eskaintza ahalbidetuko litzateke.

### **2. ETXEBIZITZA EREDU KOMUNITARIOAK ETA BELAUNALDI ARTEKOAK BULTZATU.**

Parke publikoaren handitzearekin batera etxebizitza eredu komunitario eta belaunaldi artekoak bultzatzea ezinbesteko urratsa da.

Eredu horren bitartez, jabetza kolektiboak eta bizimodu askeagoak bermatzeaz gain, behar kolektiboek eusteko bizitza komunitarioa bultzatuko duten espazio komun partekatuak sortzen dira (sukaldea, garbiketa gela, jangela...). Era berean, belaunaldi desberdinen arteko beharrak eta loturak indartzeko zein gizarte bazterketari aurre egiteko tresna ere badira.

### **3. GEHIENEZ DIRU-SARREREN %15A BIDERATZEA ALOKAIRURAKO.**

Esfortzu ekonomikoak bizi baldintza prekarioetara eraman ez gaitzan alokairuaren prezioa mugatzea ezinbestekoa da. Horretarako, sektore publikoak merkatuan esku hartu eta hori arautu behar du.

Hori horrela, gazteok prekarizatutako sektore gisa, gure baldintza sozioekonomikoen araberrako neurri zorrotzak behar ditugu. Horregatik planteatu behar da gehienez gure diru-sarrerren %15a bideratzea alokairua ordaintzera.

### **4. OKUPAZIOA DESPENALIZATU.**

Okupazioa espekulatzailen aurka izan dezakegun tresna eraginkorretako bat da. Eliteek inposatzen dutenaren kontra, erabilerarik gabeko etxeen okupazioa ahalbidetuta egon behar da. Hain zuzen ere, etxe hutsek haien funtzio soziala bete behar dutelako, pertsonen etxea izatea. Era berean, okupazioa sistema kapitalistaren logikarekin hausteko hautu gisa kokatzea beharrezkoa da.

Gainera, gazteen bizitzak ezegonkortasunak zeharkatzen dituelarik, gure beharrak asetzeko bide propioak bilatu behar izaten ditugu. Hortaz, okupazioa horretarako ere irtenbide gisa kokatzen dugu.

# Lan duina gazte guztiontzat

## 7. ENPLEGUA

Zerbaitek ezaugarritzen badu Hego Euskal Herrian gazteoi bideratutako enplegu eskaintza, hori prekarietatea da. Izan ere, duela urte batzuk langabeziaren auziak erroa hartzen zuen elementua bazen ere, egun, hori baino, enplegua beraren kalitatea da oinarrian kokatu beharreko aldagaia.

Alegia, langabezia egun ez da gazteon lan-merkatuaren egoeraren adierazlea. Egoera prekario kronikoa ezkututzen du, eta egoera orokorraren zati bat baino ez du erakusten. Hain zuzen ere, egun enpleguak ez du bizitza duintasunez garatzeko berme bat suposatzen.

Esan bezala, prekarietatea da gazteon enplegu eskaintza ezaugarritzen duen elementua. Gazteon lan-indarra ezinbesteko funtzioa betetzen baitu sistema kapitalistaren baitan. Egiatan, gazteon lan-indarrak baliatzen dira ahalik eta gainbalio handiena eskuratzeko, gazteontzat bideratuz lan-eskaintza prekarizatu eta debaluatuen. Horretarako, gazteon lan-esperientzia ezean zein bestelako kontratu sozialetan babesten dira, prekarietatea eta esplotazioa ezkutatzeko.

Besteak beste, horren adibidea enpleguaren behin-behinekotasuna da. Izan ere, egun Gazteen Euskal Behatokiaren arabera EAEn %46an eta Espainiako Estatistika Institutuaren arabera Nafarroa Garaian %45,67a kokatzen da. Europako batez besteko kopuruaren bikoitza izanik.

Horri lotuta, Hego Euskal Herrian burutzen ari den ehun industrialaren berregokitzea kokatu beharra dago. Hain zuzen, horren bitartez lehen sektorea erabat txikitu eta zerbitzuetara bideratutako enpleguak bultzatzen baitute.

Hori horrela, hurrengoak dira proposatzen ditugun neurriak:



## 1. IRUZURREKIN ETA ZABOR KONTRATUEKIN AMAITU.

Prekarietatean oinarritutako enplegua ahalbidetzeko, bi dira erabilitako mekanismo nagusiak: Lan-sarbide prozesuan garatutako iruzurrak -beka, praktikaldiak...- zein kontratu mota, kontratu laburtuak kasu. Hortaz, bi prozesu horiekin amaitu behar da, eta horretarako besteak beste, aholkularitza zerbitzu publikoak indartu behar dira eta praktika kontratuekin zein Aldi Baterako Laneko Enpresekin (ABLE, gazteleraz ETT) amaitu behar da.

## 2. GAZTENTZAKO LAN-POLTSA PUBLIKOA.

Gazteontzako lan-eskaintza duina bermatu dadin erakunde publikoak lehentasunezko agente izan behar dute. Horretarako, lan-eskaintza duina bermatuko duen gazteoi bideratutako lan-poltsa publikoaren eredia ezarri behar da.

## 3. HEMEN LAN, HEMEN ERABAKI.

Egun, Hego Euskal Herrian espainiar estatuak du enpleguari buruzko eskumen eskusiboa. Hau da, Hego Euskal Herrian enplegua arautzen duten legeak, gure errealitate sozial, politiko eta sindikala kontuan hartu gabe ezarriak dira. Horrek, defentsa tresna gabe uzten gaitu. Horregatik, hori iraultzeko lan-harremanetarako eta babes sozialerako esparru propioa aldarrikatzen dugu.

Bukatzeko, enplegu eremuan gazteok bizi ditugun gehiegikeriei aurre egiteko eta enplegu duina eskuratzeko antolatzea, gure eskubideak ezagutzea eta modu kolektiboan borrokatzea ezinbestekoa da. Bide horretan, 2023ko maiatzean LAB gure erreferentziazko klase sindikatuarekin batera aurkeztutako Gazteontzako lan eskubideen gidak gazte guztiontzat heldulekua izan nahi du, gazte ooren eskura jarri genuelarik:

**GAZTEON LAN  
ESKUBIDEEN  
GIDA 2023**



# Zaintza sistema publiko komunitarioa

## 8. ZAINITZA

Sistema neoliberal zisheteropatriarkalak ezarritako antolaketa sozial eta ekonomikoak mundua zibilizazio krisi bete-betara eraman duenaren baieztapena ez da berria. Horren baitan, zaintza krisia azalarazi eta problematizatu du azken urteotan Mugimendu Feministak.

Emakume gisa sozializatu izanak zuzenean zaintzarekin lotzen ditu emakume, bolle-  
ra eta transak, emakume eredu hegemonikoak zaintzaren funtzioa berezkoa baitu. Datuei erreparatuz gero, EAEko Denbora Aurrekontuen Inkestaren arabera, zaintza lanen %70a emakumeen esku dago. Gainera, neska, trans eta bollera gazteek zaintza lan horiek are modu prekarizatuagoan betetzen dituzte, merkantilizazio eta pribatizazio prozesuari aurre egiteko mekanismo gutxiago baitituzte.

Bestalde, joera demografikoei erreparatuz, jendarte geroz eta zaharrago baterantz trantsizioa gauzatzen ari den honetan, zaintza eredu aldatu ezean gazte belaunaldiak zaintza behar gehiagori bitarteko gutxiagorekin aurre egin beharko dio. Beste era batean esanda, datozen hamarkadetan gehiago izango dira zainduak izan behar diren pertsonak eta gutxiago zaindu ahalko dutenak.

Era berean, hori soilik ipar globalean ematen ari den fenomeno den heinean eta gaurdanik gertatzen den bezala, hego globaleko emakumeak izango dira zaintza lanak geroz eta gehiago beteko dituztenak.

Aurreko horri guztiari tentuz erreparatu behar zaio, kontuan izanik egun senideen zaintzari aste barruan emakumeen %70,5ak 10 ordu baino gehiago eskaintzen dio-

tela eta asteburuan %90era igotzen dela. Eta gizonen kasuan aste barruan %57ak eskaintzen diete menpeko senideei 10 ordu baino gehiago, asteburuan %76ra igoz (Euskal Herriko Bilgune Feminista, 2023ko udaberrian "Zaintza erregimenaren erradiografia bat"). Izan ere, egun zaintza lanak erabat, familiarizatuak, merkantilizatuak eta arrazializatuak daude.

Beraz, zaintza sistema irauli eta pertsona oroien beharrak aintzat hartuko dituen sistema baterantz trantsizioa abiarazteko unea da eta gazte mailatik ere ezinbestekoa da honakoak aldarrikatu eta indartzea:

## **1. ZAINZTA SISTEMA PUBLIKO ETA KOMUNITARIOANTZ AURRERA URRATSAK EMAN.**

Zaintza Sistema Publiko eta Komunitarioaren eraikuntzan indarrak biltzea nahitaezkoa da, hori baita egungo eredia irauli eta zaintza lanak kolektibizatu eta duintzeko tresna bakarra. Zaintza lanen egungo antolamendu sozialaren eraldaketara bidean, egun prekarioenen eta kolapsatuen dauden egoerei aurre eginez. Bestetik, sistema kapitalista zisheteropatriarkala eta arrazista gaindituko duen sistema sozial bat imajinatu eta definitu behar da.

Era berean, Herri Akordioan jasotako lehenetsuneko aldaketa eta proposamenak martxan jartzea exijitu beharra dago. Besteak beste, zerbitzuen publikazioa, lan-banaketa sexualarekin amaitzea eta zaintza eskubide gisa aitortua izatea.

## **2. ZAINZTA ERDIGUNERA.**

Heziketak eta hezkuntza ereduak zaintzaren aferan daukan eragina argi izanik, norabidea aldatzeko zenbait neurri hartu behar dira: batetik, unibertsitate zein lanbide heziketan ematen den generoaren araberako graduen eta ikasketen bereizketa gainditzeko politikak martxan jarri behar dira. Bestetik, neurri horiei jarriki, haur eta gazteen sozializazioan bizitzak erdigunean eta zaintza lanen aitortza gauzatzen duten dinamikak sustatu behar dira. Eta hori guztia bermatu dadin eta zaintzak erdigunea hartu dezan, zaintza lanak egiteko baldintzak duinak izatea ezinbestekoa da.

## **3. EKIN SARE KOMUNITARIOEN ERAIKUNTZARI.**

Jendartean gailentzen den joera indibidualista, bakarti eta atomizatuaren aurrean, zaintza lanen garapen egokirako sare komunitarioak eraikitzeke hautua egin behar da. Elkar zaintzetik haratago, zaintzaren ulerkera bera berrasmatu behar dugu. Zaintza jarduerak ahalik eta duinen egiteko bermeak eta gazteen oinarrizko bizi baldintzak bermatu behar dira.

Ordea, hau ezin da izan zerbitzu publikoek asetzen ez dituzten beharrak asetzeko mekanismo bat. Baizik eta, bizitza modu kolektiboan antolatuz bidean zaintza eta afektuak modu komunitarioan antolatuz eman beharreko urratsa da.

# *Larrialdi klimatikoaren aurrean, trantsizio ekosoziala!*

## 9. TRANTSIZIO EKOSOZIALA.

Klima aldaketaren afera ez da kontu isolatu bat, kapitalismoaren izaera estrukturalaren ondorio baizik. Klima aldaketa eta sistema kapitalistaren garapena eskutik lotuta doaz.

Klima Aldaketari buruzko Gobernu arteko panelak (IPCC) 2023ko martxoan adierazi zuenez, planetaren tenperaturaren igoera 2°C baino handiagoa izateak eragin lazgarriak eragingo lituzke planetan, eta hori ekiditeko, beharrezkoa litzateke 2050 urterako %40 eta %70 artean murriztea berotegi efektua eragiten duten gasen isurketa atmosferara, besteak beste. EAren kasuan herritar bakoitzeko 9,2 gramo karbono dioxido isuri ziren atmosferara 2017an, munduko batez bestekoaren bikoitza.

Mundu mailako elite politiko eta ekonomiko neoliberaletatik bultzatzen den klima aldaketari aurre egiteko markoak dinamika kapitalista indartzen du. Kapitalismo berdea eta merkatuaren indartzea bultzatzen da, hazkunde ekonomiko eta negozioarako aukera berriak irekiz. Eta ez, ez gara urruneko errealitateez ari: Erdizen magnesita ateratzeko meategiaz, AHTaz ari gara, Urdaibaiko Guggenheim-az...

Horren guztiaren oinarrian sektore herritarren mesedetan egingo den desazkundera gauzatzeko ezintasuna kokatzen da. Izan ere, trantsizio ekologikoaren ikuspegitik desazkunde prozesua aurrera eramatea ezinbestekoa izango da. Alabaina, gakoa

prozesu hau noren alde orientatzen den da: Elite ekonomikoena edo herri sektoreena. Gure hautua, aldiz, justizia sozialean oinarritutako trantsizio ekosoziala aurrera eramatea da, horretarako, besteak beste, politika publikoak herritarren alde jarri behar dira.

Erabaki horiek guztiak gazteok aintzat hartu gabe hartzen ari direla azpimarratu beharra dago. Haatik, krisi ekologikoak eragin berezia du belaunaldi gazteengan. Izan ere, gu gara egun hartu daitezkeen epe laburreko erabaki kortoplazista eta desegokiak ondorioak gure larrutan jasango ditugunak. Horregatik, trantsizio ekologikoa belaunaldi gazteen parte-hartze zuzenarekin gauzatu beharko den prozesua da. Beraz, aurrerantzean ezinbestekoa izan beharko da garatzen diren prozesu zein hartzen diren erabakien ganean gazteen hitza aintzat hartzea.

Bestetik, Euskal Herriak burujabetza behar du krisi ekologikoari aurre egiteko tresnak izateko (juridikoak, ekonomikoak eta abar). Estatuaren papera garrantzitsua da egiturazko neurriak hartzera bidean eta beraz, Euskal Herriak burujabetza politikoa behar du herri eta langile sektoreen mesedetara trantsizio ekosoziala bideratu ahal izateko ekosozialismoa ipar. Alternatiba egon badagoelako, baina hori gauzatzeko anbizioa eta tresnak behar ditugu.

Bide horretan, hurrengoak dira martxan jarri beharreko neurrietako batzuk:

### **1. ERREGAI FOSILEN ERABILERAREKIN AMAITU.**

Erregai fosilei behin betiko amaiera ematea da bizitzera merezi duen etorkizuna bermatzeko modu bakarra. Ekoizpen eta kontsumo sistemaren osotasunari eragin behar dion deskarbonizazioaren erronkari aurre egiteko beharrezkoak diren irtenbide tekniko, sozial eta legegileak badaude.

Baita ere, energia kontsumo netoa murrizteko, guztiontzako bidezko trantsizioa izateko eta mundu jasangarriagoa garatzeko. Justizia klimatikoa ekosistemak eta giza eskubideak babestearen eskutik baino ez da posible izango. Horretarako, besteak beste, aldaketa kulturala gauzatzea beharrezkoa da, kontsumo ereduak birdiseinatu horiek jasangarriak izan daitezzen.

### **2. ENPRESA ENERGETIKOEN PUBLIFIKAZIOA.**

Neoliberalismoak bultzatutako pribatizazio joera orokorrak pobrezia energetikora kondentzen du. Euskal Herrian milaka herritarrek neguan berogailua erabili ezin duten bitartean Iberdrola edo Naturgy bezalako enpresa multinazionalak inoizko irabazi handienak eskuratzen dabilta.

Multinazionalen boterea mugatzeko eta energia herritarren zerbitzura jartzeko energia burujabetza eskuratu beharra dago. Zentzu horretan, ezinbestekoa da enpresa energetikoen publifikazioa.

### **3. GARRAIO PUBLIKOA DUINA ETA DOAKOA.**

CO2 emisioak murrizteko ezinbestekoa da kotxearen erabilera murriztea, hala ere, gaur egun dugun garraio publikoak eskaintzen duen zerbitzua ez da nahikoa ibilgailu pribatua alde batera uzteko.

Beraz, beharrezkoa da garraio publikoa zerbitzu moduan indartzea eta guztiontzako eskuragarria izan dadin doakotasuna bermatzea, trantsizio ekologiko justua bideratu ahal izateko.

#### **4. AGROEKOLOGIAREN BIDEZ, ELIKADURA BURUJABETZA SUSTATZEA**

Trantsizio ekosozialerako, ezinbestekoa da gure bizitzak, komunitateak eta lurraldeak defendatu, zaindu eta berrantolatzea.

Horretarako, urgentziazko neurri gisa kokatzen ditugu lurraren espekulazioarekin zein makroproiektuekin amaitzea, merkataritza liberarako tratuak etetea eta jasangarritasunean oinarritutako nekazaritza eta abeltzaintza ereduak eraikitzea.

# *Eskubide guztiak, gazte guztiontzat*

## 10. ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOAK

Eskubide zibil eta politikoak bakoitzak gizartearen eta Estatuaren bizitza zibil eta politikoan parte hartzeko duen gaitasuna bermatzen dutenak dira, diskriminazio edo errepresio orotatik libre.

Espainiar estatuak eta Nafarroa Garaiko zein Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuek eskubide horiek aitortzen dituzten arren, agerikoa da ez dituztela bermatzen. Gazteok bizitza politikoan parte hartzera mugatzen dute: gu infantilizatzen zein mozal legearen bitartez gure adierazpen askatasuna debekatzen. Horien artean, azpimarra berezia merezi du kontrol sozialaren areagotzeak: geroz eta kontrol sozialerako mekanismo gehiago ezartzen ari dira, geroz eta diru-partida handiagoak bideratzen dituztelarik bideo-kontrolari. Horren atzean helburua argia dago, bizi dugun muturreko egoera gure oinarrizko eskubideak ukatuz gazteak zein herri sektoreak diziplinatzea eta kriminalizatzea.

Hori guztia gutxi balitz, atzerritartasun legearen bitartez pertsona arrazializatuak jazaritzen dituzte oinarrizko eskubide jakin batzuk eskuratzerakoan (etxebizitza, hezkuntza, enplegua, osasuna...) edota izugarritzko kontrol polizialaren bitartez. Izan ere, ez da kasualitatea Bidasoako muga zeharkatzeko saiakeran azken urteetan hamar pertsona baino gehiagok bizitza galdu izana, hori atzerritartasun legearen ondorio zuzena da. Azken datuei helduta, 2021an EAEn atzerritar jatorriko populazioaren %22a egoera irregularrean topatzen zen (EABI inkesta).

Eskubide zibil eta politikoez hitz egiterakoan, beraz, poliziaren botere gehiegikeriaz hitz egin behar dugu ezinbestean. Betidanik poliziak gehiegikeriaz jokatu izan badu, mozal legearen aplikazioarekin zeukan ahalmena biderkatu egin du.

Zentzu horretan, ezinbestekoa da gazte guztiontzako eskubide guztiak bermatze aldera hainbat neurri hartzea:

### **1. MOZAL LEGEA INDARGABETZEA:**

Herritarren segurtasuna aitzakia hartuta 2015ean indarrean sartu zenetik eskubideen murrizketak zein poliziaren gehiegikeriak ez dute etenik izan. Eusko Legebiltzarrrak Mozal legea ez aplikatzeko konpromisoa hartu bazuen ere, hainbatetan aplikatu du legea. Hain justu, 2015 eta 2022 urte bitartean 45.000 aldiz aplikatu zuen EAJren gobernuak, hau da, egunean 16 aldiz. Nafarroaren kasuan Foruzaingoak zein Udaltzaingoek 3.052 aldiz aplikatu zuten legea indarrean sartu eta lehenengo urte eta erdian, hau da, astean 33 aldiz batez beste.

Euskal Herritarrok, eta konkretuki gazteok, ditugun eskubide sozial eta politikoak eta gure adierazpen askatasuna defendatzeko ezinbestekoa da Mozal legearen indargabetzea.

### **2. ATZERRITARTASUNA LEGEA INDARGABETZEA:**

Espainiar estatuan migratutako pertsona batek gizartean errotuta dagoela frogatu eta paperak lortzeko, hiru urtez erroldatuta egon behar du. Paperak lortu bitartean ez ditu gainerakook ditugun eskubide zibil eta politikoak.

Eskubideen urraketa sistematiko eta guztiz kontzientea sufritzen dute pertsona migratuek. Gazte guztiok eskubide guztiak izateko beharrezkoa da administrazio egoeraren arabera lehen eta bigarren mailako pertsonak sailkatzen dituen atzerritartasun lege baztertzaila indargabetzea.

### **3. PARTE-HARTZE POLITIKORAKO BERMEAK:**

Sistemak gazteoi buruzko irudi despolitizatu, menpeko eta infantila bultzatzen du baina ezin daiteke errealitatek urrunago egon. Gazteok politikarekiko konpromisoa dugu eta horren erakusle da oso gaztetatik militantzia politikoan murgilduta gaude-la.

Horrekin batera, betebeharrak ditugun bezala belaunaldi gisa etorkizunarekiko erantzukizuna daukagu. Gazteok bagara nor gure eskubide eta etorkizunaren gaineko erabakimena izateko, eta beraz, parte-hartze politikorako bermeak ezartzea beharrezkoa da. Zentzu honetan, herri zein gazte mugimenduetan parte hartzeaz gain instituzioetatik ere eragitea beharrezkoa da. Horregatik, ezinbesteko eskubidetzat jotzen dugu gazteok 16 urterekin bozkatzeko eskubidea izatea.



# Proposamen bat ERNAI gazteontzat.

## OSASUN MENTALA

- I. Terapia psikologiko publikoa eta duina.
- II. Gaixotasun psikosozialen eta suizidioaren prebentzioa bermatu.
- III. Elkar zaindu dezagun, afektuak kolektibizatu.

## HEZKUNTZA

- I. Ikasketa prozesu duina bermatu.
- II. Sarbide eta prozesu doako eta unibertsala.
- III. Hezkuntza eredu feminista, euskalduna eta burujabea behar dugu.

## ETXEBIZITZA

- I. Parke publikoa handituz alokairu soziala indartu.
- II. Etxebizitza eredu komunitarioak eta belaunaldi artekoak bultzatu.
- III. Gehienez diru-sarreraren %15a bideratzea alokairurako.
- IV. Okupazioa despenalizatu.

## ENPLEGUA

- I. Iruzurrekin eta zabor kontratuekin amaitu.
- II. Gaztetzako lan-poltsa publikoa.
- III. Hemen lan, hemen erabaki.

## ZAINTZA

- I. Zaintza sistema publiko eta komunitarioantz currera urratsak eman.
- II. Zaintza erdigunera.
- III. Ekin sare komunitarioen eraikuntzari.

## TRANTSIZIO EKOSOZIALA

- I. Erregai fosilen erabilerarekin amaitu.
- II. Enpresa energetikoen publikakazioa.
- III. Garraio publiko duina eta doakoa.
- IV. Agroekologiaren bidez, elikadura burujabetza sustatzea

## BIZI EREDUAK

- I. Erasorik gabeko bizitzak nahi eta behar ditugu.
- II. Bizitza azkarretik eta logika kontsumistatik aldentu.
- III. Heziketa sexual integral eta feminista baten alde.

## ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOAK

- I. Mozal legea indargabetzea.
- II. Atzerritartasuna legea indargabetzea.
- III. Parte-hartze politikorako bermeak.



Bizitza duinak  
Euskal Herrian.



## 11. AMAIERAKO HITZA

Aurretik jasotakoak dira Euskal Herriko gazte oro era duinean bizi dadin garatu beharreko neurrietako batzuk. Argi dago, neurri isolatuek ezin izango dutela egun bizi dugun egoera irauli eta horregatik proposatutariko neurri horiek guztiek elkarrekin loturan ulertzea ezinbestekoa da.

Izan ere, gazte zein herritar orok bere bizitza askatasunez garatu ditzan bermeak sortzeaz ari gara, eta hori aldaketa kulturak gauzatzetik igarotzen da: harremanak, lana, etxebizitzak eta beste hainbat esparru zelan ulertzen ditugun zalantzan jarri eta iraultzetik, hain zuzen ere. Aitzitik, hori ezingo dugu aurrera eraman oinarrizko bizi baldintza duinak bermatu gabe. Pertsona orok bere garapen pertsonalerako beharrezkoak dituen bitartekoak eskuragarri izatea ezinbestekoa baita.

Ez baikara neurri isolatuez ari, baizik eta bizitza, mundua eta Euskal Herria beste modu batean antolatzeaz ari gara. Eta horregatik, denon bizitza duinak bermatuko dituen antolaketa sozialerako norabidean kokatzen diren alternatiben alde lerratzea da gure premisa nagusia. Eta premisa horren baitan garatu dugu proposamen hau.

Alta, hau aurkeztearekin ez da ezer bukatzen. Euskal Herriko gazteon bizi baldintza duinak bermatu arte bultzatu behar dugu. Honetarako, kaleak hartzea, antolatzea eta kolektiboan borrokatzea dagokigu. Era berean, partida jokatzetik dugun espazio guztietan egongo gara, Euskal Herriko herri guztietatik azken erabakigunera arte.

Eta baikorrak izateko zantzuak ditugu. Izan ere, Euskal Herria martxan da, herri perspektibatik erronka global zein propioei aurre egiten. Hau, azken hilabeteetan ezin hobeto ikusi ahal izan dugu. Bide horretan, gazteok orain arte bezala burujabetza eta eraldaketa sozialaren alde motore izaten jarraituko dugu, abagunea baliatuz eta anbizio osoz hitza hartuz. Bizitza duinen aldeko gazte udaberria heldu da eta ekin behar dugu, gure esku baitago aldaketa gauzatzea, aldaketa gure neurriara egitea.

Proposamenak ditugu eta horiek martxan jartzeko eginbeharra ere. Horretarako ezinbestekoa izango da geroz eta burujabetza kuota altuagoak eskuratzea. Eskuartean ditugun proposamenak egikaritzeko, gure bizitzen gaineko erabakimena eskuratu behar dugu. Hots, burujabetza kuota handiagoak lortu eta Euskal Herriko gazteon bizi baldintza duintzeari begira geroz eta gazte gehiago prozesu independentistara batzea ezinbestekoa izango da, horrela prozesua bera indartu eta egikaritu ahal izateko.

Horregatik, hurrengo hilabete eta urteak maila guztietan erabakigarriak izango dira. Orain hartzen ditugun erabakiek baldintzatuko dute Euskal Herriaren zein munduaren hurrengo hamarkadetako bilakaera. Hori horrela, parez pare galdera bat aurkezten zaigu: Zein aldetara mugitu behar da Euskal Herria? Bizitza edo kapitalarenera?

Bizitzaren alde mugitu behar dela uste dugunontzat beste galdera bat agertzen zaigu: Zer egiteko prest zaude?

**Bizitza duinak gazteontzat!**





PROPOSAMEN BAT  
GAZTEONTZAT .

**ERNATI** Gazte  
Antolakundea

Euskal Herrian,  
2024ko Otsailean